

@@@EDIKTUA, Familia eta Komunitate Politikarako zuzendariarena, ELK-2011-48-0091
espedienteari buruzkoa.@@@

M.^a Dolores García García andreak, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako
Saileko Familia eta Komunitate Politikarako zuzendariak, ediktu hau eman du:

EDIKTUA

Ezin izan zaio berariaz jakinarazi Bizkaiko bizkarmuinaren kaltetuen elkarteari Familia eta Komunitate Politikarako zuzendariaren 2011ko ekainaren 27ko Ebazpena, zeinen bidez ebatzi baitziren parte-hartze sozialean elkarteen eta boluntariotzaren eginkizuna sendotzeko den deialdian aurkeztutako eskabideak. Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2011ko urtarrilaren 3ko Aginduaren bidez egin zen deialdia, eta, aldi berean, agindu horren bitartez, 649/2009 Dekretuan aurreikusitako 2011ko deialdia egin zen (649/2009 Dekretua, abenduaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko parte-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen) .

Ebazpen horren testu osoa eskuragarri dute interesdunek, Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzan (Donostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Ebazpen horrek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioko Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako sailburuordeari, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan xedatutakoa betetzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 21a.

Familia eta Komunitate Politikarako zuzendaria,
MARÍA DOLORES GARCÍA GARCÍA.